

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

333

Irailak 15, 2018

- 2** Irun Atzo Irun Gaur
- 3** Irun Rock jaialdia
- 4-5** David R. Losadari elkarrizketa
- 6** Berri laburrak
- 8** Kirolak: Txingudi Errugbi Kluba
- 9** Kirolak: Harrera Ama Guadalupekoari Irunen
- 10** Ibilgailu pisutsuak Irunen
- 11** Haurren leihoa / Denborapasak
- 12** Euskara Irunen Barrena / Gazteen lanak
- 13** Beti Gazte: María Martín
- 14** Gazte Informazioa
- 15** Agenda



Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA



caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM



Juan de Basurko Ansola



REF: 11671

Euskal idazlea eta olerkigilea. Hondarribian jaio zen 1890 urteko maiatzaren 29an eta, bere bizitzako lehen urteak bertan pasa bazituen ere, denbora gutxian Irunera bizitzera etorri zen. Oraindik Irungo Korrokoitz kalean dagoen etxe txikian hasi zen bere lehen lanak idazten garai hartan. Lanbidez arotza bazen ere, euskal hizkuntzan idazten eta olerkiak sortzen trebatu zen bere kontu.

“El Bidasoa” astekariko kolaboratzaile ohikoa zen. Frantzia eta Buenos Aireseko (Argentina) olerki lehiaketetan sari ugari irabazi zituen. Hainbat liburu idatzi zituen euskaraz, zeinetan, kristautasunarekiko fede sakona eta Ignazio Loiolakoaren bizitza bertsoan islatu zituen. “Aranzazu” eta “Oroitza” dira Basurkok idatzitako lanetako batzuk, baina, bere lanik aipagarria “Jesusen Bisitza” izenekoa da.

Irunen hil zen 1957 urteko abenduaren 25ean. Irungo San Miguel auzoko kale batek bere izena darama.

Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

Publizitatea:

Amaia Terrazas
(amaia@irunero.eus)
Ion Otxoa
(ion@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Irun Rock jaialdiaren bederatzigarren edizioa ospatuko da irailaren 29an

Irailaren 29an ospatuko da Irun Rock musika jaialdiaren 2018 urteko edizioa. Aurtengo edizioarekin jaialdiak bederatzigarren edizio ospatuko ditu Irunen. Kontzertu guztiak egun bakarrean egingo dira eta taldeek San Juan plazan kokatuko diren bi eszenatokietatik eskainiko dituzte haien kontzertuak.

Aurtengo Irun Rock jaialdiaren nobedade nagusia jaialdiaren barneko kontzertu guztiak egun bakarrean egingo direla da, hain zuzen ere, irailaren 29an, larunbata. Era honetan, hamar edizioak ospatzetik gertu dagoen jaialdia udazkeneko musikaren munduko data ezinbestekoan bihurtu da jada.

Kontzertuak San Juan plazaren espazioa ezberdinetan kokatuko diren bi eszenatokietan ospatuko dira eta kontzertuetarako sarrera dohainekoa izango da. Juncal Eizaguirre kultura ordezkariak adierazi du, "joan den urteko edizioaren emaitza onak ikusita, jaialdiaren formatua errepikatzea erabaki dugu aurten".

Kontzertuek goizean, arratsaldean eta gauean musikaz beteko dute Irun hiriko erdigunean. Eguerdiko 12:00etan hasita eta 14:00ak bitarte egingo dira lehen kontzertuak, hamaiketako ordua girotzeko. Arratsaldean, berriz, 17:00etan hasiko da berriro musika eta gaueko 00:45ak arte luzatuko da jaialdia.

Guztira, 10 izango dira Irun Rock jaialdiaren 2018 urteko edizioan parte hartuko duten musika talde eta abeslari bakarlariak. Grises taldeaz gain, Tav Faco & Phanters Bruns, Vulk, The Lucilles, Oso Fan, Pet Fennec Iñigo Serrulla, La Bona Dea, Olimpia eta Indixabak izango dira Irun Rock jaialdiaren bederatzigarren edizioan kontzertua eskainiko duten gainontzeko taldeak.

Irun Rock jaialdiaren aurreko edizioetan rock eta indie musikaren munduko talde entzutetsuek parte hartu izan dute. La M.O.D.A, Belako, Triángulo de Amor Bizarro, Siniestro Total, Angel Stanich, Viva Suecia o Nacho Vegas, besteak beste.

Esperientzia errepikatzeko aukera

"Grises" izeneko talde gipuzkoarra izango da kartel-burua. Ez da talde bermeotarra Irunen kontzertua eskaintzen duen lehen aldia izango. Izan ere, 2016 urteko San Pedro eta San Martzial jaien barruan Urdanibia plazan izandako kontzertu entzutsuenetako bat izan baitzen haiena. Aurten, ordea, taldearen azken bisitatik sortutako abesti berriak jarraitzaile irundarrei erakusteko aukera izango dute.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
 info@inmobiliariaolaizola.com
 www.inmobiliariaolaizola.com

DAVID R. LOSADA, zinema-zuzendaria:

“Donostiako Zinemaldian pelikula aukera ikaragarria da”

Bere lehen pelikula, “La noche del raton” nazioarteko jaialdian aurkeztu ostean, “Lady off” izeneko filma aurkeztuko du David R. Losada zinema-zuzendariak. Pelikula Donostiako Zinemaldiaren 66. edizioan estreinatuko da. Hortaz gain, Madrilgo “Nuevos Realizadores” izeneko Zinema Jaialdian ere ikusi ahalko da filma. Zineaz gain, Losadak 2017 urtean “Tu rostro por partes” liburua argitaratzea lortu zuen.

“Zinemaldiaren ikusle moduan hazi gara eta, orain, programazioaren parte izatea izugarria da”

Nola laburbilduko zenuke “Lady Off” pelikulan kontatzen dena?

Pelikula off antzerkiaren munduan zentratu dago. Shakespearren obra bateko eszena konkretu baten interpretazio-lana erakusten da. Pelikula osoa Madrilen errodatu zen, aurretik obra beraren antzezlanean lan egin zuten aktoreen kolaborazioarekin.

Nola sortu zen “Lady Off” pelikula grabatzeko ideia?

Joan den urteko urtarrila edo otsaileko hilabete aldera sortu zela esango nuke. Pelikulan irudikatzen den parteari aspaldi deitu zuen gure arreta, denbora labu-

rrean obrako pertsonaiek aldaketa handiak jasaten dituztelako. Gure asmoa aktoreek aldaketak behar den moduan antzetzeko zeuzkaten zailtasunak erakustea zen.

Berezia da zure bigarren pelikula Donostiako Zinemaldian aurkeztu ahal izatea?

Donostiako Zinemaldian pelikula estreinatzea aukera ikaragarria da. Zinea egiten hasten zarenean zure buruan sortzen den lehen ametsetako bat da zure pelikula bat Zinemaldian estreinatu ahal izatea. Zinemaldiaren ikusle moduan hazi gara eta, orain, programazioaren parte izatea izugarria da. Etxean bertan egiten den zinemaldia izanik aukera berezia da, baina, onartzekoa da nazioarte mailan izen handia duen jaialdia ere badela.

“Irudiekin hitzekin baino hobetu funtzionatzen dut”

Aurreko pelikularekin lorturiko esperientzia lagungarria izan zaizu?

“La noche del raton” pelikularen prozesua askoz eragoa izan zen, ez genekielako non sartzen ari ginen. Bigarren pelikulak itxura esperimentalagoa dauka eta ikasten jarraitzen dugu. Pelikula errodatzen hasi ginean ezinezkoa zintzaigun prozesuaren amaieran lortuko genuen emaitza aurreikustea, horregatik, gauza handirik kontatu gabe aritu gara orain arte lanean. Hala ere, bidea irekita edukitzeak gauzak asko erraztu dizkigu.

Nolakoa izan da literaturaren munduan izandako lehen esperientzia?

Espero gabeko esperientzia izan zela esan dezaket. Idaztea betidanik gustatu zaidan arren, era desantolatuan egin dut beti. Hor norbait erdizka neukan eleberri

labur bat berreskuratu eta egunen batean hasitakoa amaitzeko lanean hasi nintzen. Amaitu ostean, lana editorial ezberdinetara aurkezteko egin zidaten gomendioa jarraitzea erabaki nuen. Irakurtzeko ohitura daukagunontzat oso arraroa da zure izena daraman liburu bat esku artean edukitzea, baina, era berean, oso sentsazio polita da.

Zinea eta literaturaren artean antzekotasunik ikusten duzu?

Nire esperientziaren arabera, literaturaren mundua gutxi ukitu dudanez, ezin dezaket gehiegi hitz egin. Alde sortzaileari dagokionez, elkarren artean zerikusituta gutxi duten bi arte ezberdin direla esango nuke. Egia da biak zuri dagoen orrialde batekin hasten direla, baina, bi hizkuntza oso ezberdin dira. Ez soilik kontatzeko era, kontatzeko aukeratzeko duzuna ere desberdina izan behar dela iruditzen zait.

Bi mundu horietako zeinetan sentitzen zara erosoago?

Argi daukat irudiekin erosoago sentitzen naizela. Irudiekin hitzekin baino hobetu funtzionatzen dut. Zinea egiteko prozesuari fase ezberdinak ikusten dizkiot: grabazioa eta muntaia. Muntaiaren, lortutako irudien arabera, dena berridazteko aukera daukazu.

Etorkizunari begira zein proiektu daukazu buruan?

Literaturaren munduan gutxi. Noizbehinka ideien bat bururatzen zaidanean, lerro batzuk idazten ditudan arren, niretzat gordetzen ditut. Zinemari dagokionez, pare bat proiektuetan lanean gabiltza jada. Amaigabea izan daitekeen garapen fasean aurkitzen gara orain bi ekoiztetxeekin lanean. Bestetik, beste ekoiztetxe batekin serie formatuan lan egiten hasi gara eta proiektua telebista eta plataforma ezberdinetan aurkeztu dugu, proiektuan interesik duten ezagutzeko. Hala ere, ezin dugu ahaztu produktu izugarria sortzeko lan egiten dugun arren, azken finean, zorte kontua dela.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964




FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com

estreinatzea



Argazkia: Estudio Gover

Neumáticos
txepetxa



NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99





Jardunaldi berriak Oiasso Erromatar Museoan

Udako hilabeteak amaitu ostean, Oiasso Erromatar Museoak ekintza ezberdinak antolatu ditu hurrengo hilabeteetarako. "Erromatar arkeologia" izeneko kurtsoa martxan jarriko da. Hortaz gain, maiatzeko hilabetetik martxan dagoen "Emakumeak Augusta Emeritan" erakusketa ikusgai egongo da irailaren amaierara arte.

"Erromatar arkeologia" izeneko kurtsoak Antzinako Greziaren inguruko kurtsoari lekukoa hartuko dio, Antzinako Erromaren artea eta historia errepasatzeko. 10 saioetako iraupena izango duen ikastaroaren matrikulazio epea irailaren 11ean hasiko da eta plazak bete arte egongo da ikastaroan izena emateko aukera. Kurtsoak 55 euroko prezioa izango du eta izen-ematea museoko harrera-gunean edo 943 63 93 53 telefonora deituz egin ahalko da.

Ikastaroaz gain, iraileko hilabete zehar "Emakumeak Augusta Emeritan" izeneko erakusketa bisitatzeko azken aukera izango da. Irailaren 28an, Amaia Rodriguezek ahotsa emango die antzinako emakumeei bisita gidatu antzetzute batean. Sarrera 4 euroko kostua izango dut eta sarbide mugatua 30 pertsonakoa izango da.

Udara borobila Irungo turismoarentzako

2018 urteko udarak datu turistiko borobilak utzi ditu Irunen. Uztaileko hilabetearen hotelen okupazioa %80koa izan zen eta abuztuan, berriz, okupazioa %100tik gertu ibili zen. Guztira, 3.938 bisitari igaro dira Luis Marianon kokaturio turismo bulegotik.

Aurten lortutako datuak 2017ko datuekin alderatuz gero, uztaileko okupazioa altuagoa izan zen iaz, izan ere, %90a iritsi zen eta. Abuztuko hilabetearen, berriz, aurtengo datuak hobeak dira, iazko okupazioaren %95a gainditzea lortu delako. Bisitarien hirian egindako gaudien batzuetan kopurua 1,63 gauekoa izan da aurtengo uztailean.

Luis Marianon kokaturio turismo bulegoak erregistraturiko datuen arabera, kontsultaren bat egitera hurbildu diren bisitarien kopurua murriztu da aurten. Hain zuzen ere,

aurten 3.938 bisitari gerturatu dira bulegora eta iaz 4.057 izan ziren.

Bisitarien jatorriari dagokionez, bisitarien %37,65a Frantzia, Alemania, Erresuma Batua edo Belgika bezalako atzerriko herrialdeetatik etorri da. Bestetik, %29,29a Madril, Katalunia, Valentzia eta Gaztela eta Leon bezalako Espainiako Autonomi Erkidegoetako bisitariak dira. Gainontzekoak, bertako zein Euskadiko bisitariak dira.

Bisitari eta biztanleek hiriaren ondare naturala, arkeologikoa, kulturala eta historikoa ezagutzeko ekintzen eskaintza zabala izan dute aukeran. Oiasso Erromatar Museoak 8.500 bisitari jaso ditu, joan den urtean baino %4 gehiago. Bestetik, Donejakue Bidea egiten ari diren erromesen kopurua etengabe handituz doa. Gainera, Irungo leku adierazgarrienak ezagutzeko bisita gidatuak egin dira.



Fernando
Vergara
argazkilaria

Letxunborro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com



ikasturtea

dantza



2018/2019 ikasturtea hastera doa!
5 urtetik gorako haur (kurtsoan zehar beteak)
eta gazteentzat.

Iñudeak eta Artzaiak, emanaldiak, irtenaldiak, bidaiak...

Talde txikiak eta
esperientziadun irakasleak.

Klaseak Behobian dira.

Informazio gehiago lortzeko edo izena emateko:

Tel: 669184179 (Ane), WhatsApp erabilgarri.

Facebook: Eraiki Dantza Taldea

e-mail: eraikidantza@gmail.com

ERAIKI



IÑIGO CAMARERO, Txingudi Errugbi Klubeko lehendakariordea:

“Taldea goian mantentzea eta lehen taldera igotzen saiatzea izango dira aurtengo helburuak”



Udako oporraldien ostean, denboraldi berria prestatzeko lanean hasi da Txingudi Errugbi Klub taldea. Aurre-denboraldiko entrenamenduetan gogor lan egiten ari dira irailaren 30ean hasten den ligarako sasoi batean egoteko.

Aurreko denboraldiaren amaieran lortutako datuekin pozik zaudete?

Bai, nahiz eta lehen taldera igotzeko zorian egon ginen arren, azkenean, ezinezkoa izan zen hasierako helburuetako bat lortzea. Hala ere, gure hasierako beste helburua taldea lehen postuetan mantentzea zen eta hori lortu genuen.

Hurrengo denboraldia prestatzeko entrenatzen hasi zarete jada?

Abuztuaren hasieran hasi ginen senior taldearekin lanean aurre-denboraldia

prestatzeko. Abuztuko entrenamenduak, batez ere, fisikoagoak izan ziren eta irailan atal tekniko lantzen hasi gara.

Aurtengo taldean aurpegi berri asko daude?

Ez, taldea aurreko urtekoarekin alderatu oso antzekoa da, nahiz eta 3 baja dauzkan. Taldea utzi duten jokalariak Sub18tik igoko diren gazteekin ordezkaturiko ditugu.

Lagunarteko partiduak lagungarriak dira denboraldia prestatzeko?

Zalantzarik gabe, ez da egokia txapelketa ofizialetara iristea aurretik aurkariekin inolako kontakturik izan gabe. Horregatik, irailaren 14 eta 22rako taldeak bi lagunarteko partidu hitzarturik dauzka.

Azken hiru urteetan igoera hain gertu ikusi ostean, aurten pausua ematea lortuko duzue?

Beti esaten dugun bezala, saiatuko gara.

“Ez da egokia txapelketa ofizialetara iristea aurretik aurkariekin inolako kontakturik izan gabe”

Taldea goian mantentzea eta lehen taldera igotzen saiatzea izango dira aurtengo helburuak. Aurten, gainera, Sarako Izarrak iparraldeko taldea sartuko da ligan eta aurkari makala izango ez dela suposatzen dugu.

Ezarritako helburuak lortzeko, zer aldatu beharko litzateke taldean?

Azken urteetan jokalaria-kopuru nahiko eskasa daukagu. Beti esan dut, denboraldi

“Aldageletan giro ona dago eta hori jolasterako orduan nabaritzen da”

on bat egin ahal izateko 30 edo 35 jokalaria izatea beharrezkoa dela eta gu 25 jokalariren inguruan gabilta. Denboraldi bukatara jendea lesionaturik edo minberaturik iristen da eta, egoera horretan, ezinezkoa da emaitza onenak lortzea.

Zeintzuk dira taldearen indarguneak?

Talde nukleo ona daukagu, aldageletan giro ona dago eta hori jolasterako orduan nabaritzen da. Azkenean finean, gure artean oso ondo eramaten gara urteak daromatzagulako elkarrekin jolasten.

Eskola errefortzua

- Lehen eskuntza, DBH eta batxilergoa
- Azterketetarako prestakuntza

- Ikasketen nahastea dutenei laguntza (Distexia, arreta gabezia...)

- Ikasketen teknikak



ikas



Lagun

Akademia

Elkano Kalea 5 (behea), Irun

Ikasketa gela ikasleentzat

628085960

ikaslagun@ikaslagun.es

Talde txikiak - arreta pertsonalizatua

www.ikaslagun.es

Irundarrek harrera beroa egin zioten Hondarribiko arraunlariek irabazitako Kontxako Banderari



Hondarribia Arraun Elkarteko arraunlariek Kontxako Bandera etxera eraman zuten irailaren 9an. Azken urteetan izandako Kontxako Banderaren final estuenetako bat izan zen eta, Zierbenaren aurkako lehia amaigabe baten ostean, Hondarribiko arraunlariek garaipena eskuratu zuten 90 ehunen aldearekin.

raipenak eragindako poztasunaz gain, presidenteak azken urtean elkarrekin gaitutako une gazi-gozaok gogoratu zituen.

“Kontxako Bandera bat irabazten denean, garaipenari behar duen garrantzia ematen jakitea garrantzitsua da”

Joxemi Elduayen, Hondarribiko Arraun Elkarteko presidentea

Estropada irabazi ostean, gogor borrokatutako garaipena ospatzeko unea iritsi zen. Donostiatik itzultzerakoan, Irungo Udalak Kontxako Bandera irabazi berri zuten arraunlariarentzako harrera ekitaldia antolatu zuen San Juan plazan. Zaletuen txalo zaparrada eta zoriontasun hitzen artean arraunlariek, txarngaren erritmoa jarraituz, San Juan plaza oinez zeharkatu zuten Irungo udaletxeraino iristeko.

bizi izan dut momentu hau”. Izan ere, aspalditik dator Hondarribiko Arraun Elkarteak Kontxako Bandera irabazten duenean Irungo Udaletxean arraunlari harrera egiteko ohitura. Hain zuzen ere, 2005 eta 2013 urteetan irabazi zuen Hondarribiko klubak azken aldiz Kontxako Bandera.

Afizioaren babes mugagabea Askotan izan ziren San Juan plazaren inguruan Hondarribiko arraunlari harrera egitera hurbildu ziren jarraitzaileak. Arraunlariak, ohitura den moduan, udaletxeko balkoira atera ziren bandera astindu eta plazan pilatutako zaletuak agurtzeko.

“Irunera etorri eta etxeko jendearekin garaipena ospatu ahal izatea zoragarria da”

Xabier Velasco, Hondarribiko traineruko arraunlari irundarra

Udaletxearen barnean, Jose Antonio Santanok, Irungo alkateak, zein udal-gobernuko kideek ongi etorria egin zieten arraunlariari. Jose Antonio Santanok Irungo alkateak gogoratu zuen, “alkate bezala hiru aldiz

Joxemi Elduayen, Hondarribia Arraun Elkarteko presidentea edozein arraun elkarerentzat Kontxako Bandera irabaztea lan makala ez dela onartu zuen. “Kontxako Bandera bat irabazten denean, garaipenari behar duen garrantzia ematen jakitea garrantzitsua da”, gaineratu zuen elkarteko presidentea. Klubak eskuratu berri zuen ga-

Xabier Velasco Hondarribiko traineruko arraunlari irundarra adierazi zuen, “Irunera etorri eta etxeko jendearekin garaipena ospatu ahal izatea zoragarria da”. Irunen egindako harreraren ostean, arraunlariak Hondarribira itzuli ziren garaipena herri osoarekin ospatzeko.



AUNTXA TRIKITIXA ESKOLA TRIKITIXA ETA PANDEROA

5 urtetatik aurrerako haur eta helduentzat zuzenduta
Irakasteko metodo desberdinak:
Zenbakiz osatutakoa, aurrez-aurre, solfeoz

Aldabe Mendia Kalea 31, Irun
943 61 88 39 - 615790510

www.auntxatrikitieskola.com
info@auntxatrikitieskola.com

Saihesbidean ibilgailu pisutsuen igarotzea murrizteko konponbidearen bila dabil Irungo Udala



“Udaran eta oporren amaieran, hiriko sarbideak kolapsaturik ikustea irudi ohiko batean bihurtzen ari da”

Cristina Laborda, Polizia eta Mugikortasun ordezkaria

Azkenaldian, Irungo saihesbidea erabiltzen duten ibilgailu pisutsuen kopurua era nabarmenean igo da. Ondorioz, Irungo hiriaren erdialdean zein hiri-aldrietan auto-pilaketak sortzen dira ia egunero, gainontzeko ibilgailuen zirkulazioa oztopatuz. Zehazki, Behobia eta Osinbiribil inguruak batzen dituen errepide zatia da arazo gehien sortzen dituen.

Paco Martinez eta Jose Barreiro, Behobia eta Artia Auzo Elkartetako presidentek, Agustin Gonzalez, Irungo Hiritar Foroko presidentea, eta Cristina Laborda, Polizia eta Mugikortasun ordezkaria, elkartu dira azken hilabeteetatik ona irundarrek pairatzen duten arazoa salatzeko. Cristina Laborda Polizia eta Mugikortasun ordezkariak salatu du, “udaran eta oporren amaieran, hiriko sarbideak kolapsaturik ikustea irudi ohiko batean bihurtzen ari da”.

Aspaldi sorturiko arazoa konpontzen saiatzeko 2010 urtean GI-636 errepidean Behobia eta Osinbiribil artean edo Juan Thalamas Labandibar kaletik ibilgailu pisutsuen igarotzea murrizten duen Agindu Foral bat dago. Era honetan, hiri-erdialdetik Irun abiapuntutzat edo helmugatzat ez duten kamioien zirkulazioa ekidin nahi zen, errepide horiek hiriko barne-zirkulaziorako erreserbatzeko. Auto-pilaketen sorrera saihesteko, ibilgailu pisutsuak A-8 autobidea erabili beharko lukete.

Konponbidearen bila


Azken urteetan arazoa kudeatzeko kontrola murriztu eta biztanleen kekek areagotu direla aipatu du Cristina Laborda Polizia eta Mugikortasun ordezkariak. Gainera, udal ordezkariak Ertzaintzaren Trafiko Zuzendaritza Probintzialarekin bilera ugari egin dituzte arazoa kudeatzen saiatzeko. Hortaz gain arazoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuetan jarri da, eskuduntza duen administrazio-organoa denez gero.

Udara hasi aurretik, Udaltzaingo Unitateak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bilera bat izan zuen, GI-636 errepidetik ibilgailu pisutsuen igarotzea murrizten duen Agindu Foral Bentas eta Behobia arteko errepide zatiari zabaltzea eskatzeko. Bide Azpiegituren sailak eskaera aztertu ostean, proposamena ezeztatu zuen, murrizketa zabaltzea beharrezkoa ez zela argudiatuz.

Cristina Laborda Polizia eta Mugikortasun ordezkariak adierazi du, auto-pilaketak saihesteko ibilgailu pisutsuen igarotzea murrizten duen Agindu Foralaren betekizuna era zorrotzean bermatzea ezinbesteko ikusten du. Hortaz gain, biztanleen kekei erantzunez, murriztapena hiriko beste errepide batzuetara zabaltzea beharrezkoa dela gaineratu du.



Dunboa LH1



Unax Cordora 2.B

Denborapasak

Zazpi izen

O E X J H A U E E M S O S R A L X
 H H P N R M M X N O R Y A B I D F
 E B I R E E I A O E U I U I M E S
 L V L A V N R K I S K I C E A I K
 Z P E T N Y A S B A O O I X R I K
 U F U L E A T I K E R A N J Y X W
 Y R K Z J E I I U U J J Y T V D H
 W I E L I X A B E T E Z X T F E M
 E M A H T E L C E K L H F G P R U
 A L N I Y W S E R T L A V E Z I Q
 F X S X U E Q L X X J J E U Z X S
 R X E E O Y O O O G K H O Y W T J
 H V E E A C O N L Y H U F L A O I
 O W E F V V S Y V Y H S Y S U S E
 N P Q A Z A E M L A E V E Q M I B
 U G Q W W R Y Z I J N Y O O B J I
 L E U V Y N L I F Q O O Y U V I F

						8	2
			7				5
7	9						
	4			1	5		
			9	8	7	4	6
	6	7		4			2
	7		3				1
					8	2	5
4	5	6	7		2		9

Iker, Ohiana, Elixabete, Eneko, Amaia, Aimar, Irati

Euskaraz, Irunen barrena

Ordu onian zatoz

Ordu onian zatoz
astera lanian,
gabian tabernan eta
egunez oyian,
beti eranian,
pena mingaŕian,
txutikan ezin egon
oñaren gañian,
lagun ederra daukat
aldemenian.

Gure amak-eta kantatzen zittuzten oiek.

Irungo Kateako S.R.A. andereari jaso
(1959ko uda). (El Bidasoa, 1959-XI-14)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

Elatzeta LH3



bideosare

- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

Bideoak zure erara!



bideosare.com



MARÍA MARTÍN, abeslaria:

“Ezin naiteke musikarik gabe bizi”

“Ez naiz abeslari bakarria erreferente bezala aukeratzeko gai, erreferente on asko baitaude”

“Abestea kirol bat praktikatzea bezalakoa da niretzat”

Argazkia: Estudio Gover

Ametza Txiki abesbatzaren barnean abiatu zen Maria Martin abeslari gaztea musikaren munduan. Donostiako Kontserbatorioan Erdi-mailako Kantu gradua egin ostean, Musikenen Goi-mailako graduari ekingo dio aurten, bere talentua etorkizuneko ogibidean bihurtzeko formazioa jasotzeko asmoarekin.

Nola konturatu zinen musika ikasten jarraitu behar zenuela?

Hasieran, hobeto abesten ikasteko asmoarekin soilik hasi nintzen musika ikasten. Irakasle-ikasketak egin ditudan arren, denboraren joanarekin kantatzea gehiago gustatzen zitzaidala ikusi nuen eta nik jarraitu beharreko bidea kantua zela konturatu nintzen.

Zein proiektuetan parte hartu duzu udara honetan?

Udara osoan kontzertu asko izan ditut, ikasten jarraitzeko kurtso eta ikastaroez gain. Donostiako Musika Hamabostaldiaren barnean kurtso bat egin nuen Ana Luisa Chova kantu irakasle ospetsuarekin. Hortaz gain, Easo Abesbatzarekin batera Sorozabalen oroimenez eginiko

omenaldian parte hartu nuen.

Donostiako Musika Hamabostaldian parte hartzea berezia izan da?

Bai, aukera handia izan da. Oso ondo antolaturik dago, Hamabostaldiko ikastaroetan musika irakasle ezin hobekin elkartzeko aukera daukazulako eta, haien esperientziari esker, asko ikasten baituzu bertan. Gainera, ikastaroaren amaieran kontzertu bat dago ikastaroan zehar ikasitako guztia erakustsi eta praktikan jartzeko.

Emanaldiak prestatzeko ordu asko sartu behar dituzu?

Bai, kurtso batera zoazenean dena prestatu eraman behar duzu etxetik. Izan ere, irakasleek, aurretik dakizunetik abiatuta, gauzak ahalik eta hoberen egiten lagun zaitzakete bakarrik.

Baduzu musikaren munduan zuretzat erreferentia den abeslariren bat?

Hemen inguruan, Euskal Herrian, kantu irakasle zein abeslari oso onak daudela esango nuke, baita atzerrian ere. Hala ere, ez naiz abeslari bakarria erreferente bezala

aukeratzeko gai, erreferente on asko baitaude.

Musika eta haurren artean lotura estua dagoela uste duzu?

Bai, irakasle-ikasketak egin ostean musikari behar duen garrantzia ematen ez zaiola konturatu naiz. Niretzat abestea kirol bat praktikatzea bezalakoa da.

Nola imajinatzen duzu zure burua etorkizunari begira?

Orain Musikenen ikasten hasiko naiz eta bertan lau urte pasako ditut. Etorkizunean, operetan abestea edo kontzertuak ematea gustatuko litzaidake. Aukeratu beharko banu, momentu honetan errazagoa zait nire burua abeslari moduan imajinatzea, eskola batean irakasle lanetan baino.

Zer da musika zuretzat?

Nire bizitza osoa. Ezin naiteke musikarik gabe bizi.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Web gunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Gazte ARTEan beka 2018

Irungo Udalak 2018 urteko Gazte ARTEan beka aurkeztu du hiritar gazteen ikerkuntza lana bultzatu eta udalarekin kolaborazio bideak zabaltzeko helburuarekin. Parte hartzaileek gai nagusitza haurrak edo/eta nerabeak edo/eta gazteak dituen ikerketa ekintza proiektu bat garatu beharko dute. Irabazleak 8.000 euroko zenbatekoa eskuratuko du garatutako proiektua martxan jarri ahal izateko.

Epea:
2018ko azaroaren 11 baino lehen aurkeztu beharko dira eskaria egiteko agiriak.

Baldintzak:

- Proiektua banaka edo lantaldean aurkeztu ahal da. Taldean aurkeztu ezker, taldeko partaide guztiek bete beharko dituzte eskatutako baldintzak.

- Pertsona parte hartzaileek unibertsitate gradu edo lizentziatura bat edukitzea ezinbestekoa izango da.

- Eskatzaileek 35 urte baino gutxiago izan beharko dituzte.

Iraupena:

Ikerkuntza-lanaren gehieneko iraupena 8 hilabetekoa izango da.

Formatuak:

Azken emaitza proiektu, prozesu edo ekintza gisa aurkeztu ahal da.

Udal kiroldegien itxiera

Urteroko mantentze-lanak direla medio, Azken Portu eta Artaleku Udala Kiroldegietako zenbait instalazioek itxierak edo ordutegi aldaketak izango dituzte iraileko hila-betean zehar.

Azken Portu kiroldegiko itxierak:

- Instalazio guztia: Irailaren 22 eta 29an, larunbatetan, instalazioak goizeko 8:00etatik 22:00ak arte zabalik egongo dira. Igandeetan, berriz, 9:00etatik 14:00etara.

Artaleku kiroldegiko itxierak:

- Igerilekuak eta SPA: irailaren 16tik 30era, biak barne, itxita egongo dira.

- Fitness aretoa: irailaren 17tik 21era, biak barne, itxita egongo da.

- Instalazio guztia: irailaren 19 eta 20ean itxirik egongo da, harrera-lekua izan ezik, goizeko 8:00etatik eguerdiko 15:30etara itxirik egongo dena. Bestetik, 22 eta 29an, larunbatetan, eta igandeetan kiroldegia 9:00etatik 14:00ak arte zabalik egongo da.

urtzi goi gana

INMOBILIARIA

Home Staging zer den entzun duzu? Pentsatu etxe batean sartu eta egin berria den kafearen usaina usaintzen duzula eta dekorazio aparta ikusten duzula. Maindireak dauzkan ohe bat dago bertan etzatera gonbidatzen zaituena eta guztiz hornitutako mahai bat non bertan eseri eta janariaz disfrutatzea gonbidatzen zaituena.

Orain imajinatu etxe berean sartu eta hezetan usaina dagoela, ohea maindirerik gabe dagoela, sukaldea hutsik eta egongela hotz.

Bigarren kasuan, hor bizitzen imajinatzeke esfortzu handia egin beharko zenuke. Lehenengo kasuan, ordea, atetik sartu zaren momentuan hor bizi zaitezkeela ikusi duzu.

Hori da Home Staging, zure etxebizitzaren aurkezpen hobereana egitea.

Ikusi itzazu egin ditugun adibide batzuk:



661 875 785

www.inmobiliariaurtzigoigana.com/eu/

Alkoria / Salmenta / Eraginkortasun Energetikoen Zuzlaginak / Arkitektura zerbitzuak / Home Staging zerbitzuak (etxebizitzaren alantza) Zure etxebizitza elartzen badiguzu, Eraginkortasun Energetikoen Zuzlagin eta Home Staging zerbitzuak doren eduki dituzu (kontsumatu baldintzeki)

Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiar.net
kopiar@kopiar.net
943 63 93 01

Irailak

17tik 23ra

21

2018ko Europako Mugikortasunaren Astea

Irailak 18 eta 20, astearte eta osteguna:

Tipi-tapa: Goizeko 10:00etan abiatuko da Luis Marianoko Gizarte Zentrotik. Ordu bat eta erdiko iraupena izango dute ibilaldiek.

Irailak 20, osteguna:

Eskolara oinez.

Irailak 22, larunbata:

Zabaltza plazan eta Kolon ibilbidean hainbat ekintza:
- 10:30etatik 12:00etara: Informazio-gunea eta objektu ematea.
- 13:00etatik 20:00etara: Merca2dasoa Zabaltza

plazan
- 16:00etatik 20:00etara: Mugikortasun jasangarriari buruzko erakusketa Kolon pasealeku, Zabaltza plaza eta Luis Marianoko lorategietan.
- 16:30etatik 19:30etara: Familientzako ekintzak, tailerrak eta jokoak Zabaltza plazan.

Irailak 23, igandea:

Bizikleta martxa: 10:30etatik 11:30etara. Irteera eta helmuga Zabaltza plazan.
Igande sasoi: Zabaltza plazan eta Kolon pasealekuan 11:00etatik 13:00etara.

Zinema "Una mujer fantastica"

Zer: 2017 urtean Ingelesa ez de hizkuntza batean egindako pelikula onenaren Oscar saria irabazi zuen "Una mujer fantastica" pelikularen emankizuna.

Lekua: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan. Sarrera: Doan.

Oharra: Proiekzioaren ondoren, eztabaida Ramón Gómez Txileko zuzendaria eta trans aktibista batekin.



Denborapasen emaitzak

D	E	X	J	H	A	U	E	E	M	S	O	S	R	A	L	X
R	H	P	N	R	M	X	N	O	R	Y	A	B	I	D	F	
E	B	I	R	E	E	T	A	O	F	U	I	U	I	M	E	S
L	V	L	A	V	N	R	K	I	S	K	I	C	E	A	I	K
Z	P	E	T	N	Y	A	S	B	A	O	D	I	X	R	I	K
U	F	U	L	E	A	T	I	K	E	R	A	N	J	Y	X	W
Y	R	K	Z	J	E	I	I	U	U	J	J	Y	T	V	D	H
W	I	E	L	I	X	A	B	E	T	B	Z	X	T	F	E	M
E	M	A	H	T	E	L	C	E	K	L	H	F	G	P	R	U
A	L	N	I	Y	W	S	E	R	T	L	A	V	E	Z	I	Q
F	X	S	X	U	E	Q	L	X	X	J	J	E	U	Z	X	S
R	X	E	E	O	Y	O	O	S	K	H	O	Y	W	T	J	
H	V	E	E	A	C	O	N	L	Y	H	U	F	L	A	O	I
O	W	E	F	V	V	S	Y	V	Y	H	S	Y	S	U	S	E
N	P	Q	A	Z	A	E	M	L	A	E	V	E	D	M	I	B
U	G	Q	W	R	Y	Z	I	J	N	Y	O	D	B	J	I	
L	E	U	V	Y	N	L	I	F	Q	O	O	Y	U	V	I	F

5	3	4	1	0	6	7	8	2
6	8	1	2	7	4	9	3	0
7	9	2	8	3	5	4	6	1
8	4	9	6	2	1	5	7	3
3	2	5	0	0	7	1	4	0
1	6	7	6	4	3	8	2	8
2	7	8	3	5	9	6	1	4
9	1	3	4	6	8	2	5	7
4	5	6	7	1	2	3	8	8

25

Dantza "Xihiko"

Zer: Elirale dantza konpainiak sortutako "Xihiko" familientzako ikuskizunaren antzezlan.

Lekua: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Sarrera: 4,30 euro.

Sarrerak eskuratze: Internet bidez, Luis Marianon kokatutako turismo bulegoan edo Amaia Kultur Zentroko leihatiletan.

Oharra: 45 minutuko iraupena izango du antzezlanak eta euskaraz egingo da.

27tik 30era

"Harri, Orri, Ar" eskulan eta DIY azoka

Zer: Eskularen munduarekin loturiko erakusketariak, tailerrak, masterclassak, hitzaldiak, azokak, erakustaldiak, lan eta jarduera-eremuak familia osorako, hiru egunetan.

Lekua: Ficoban.

Ordutegia:

28an, ostiralean, 16:00etatik 20:00etara.

29an, larunbata, 11:00etatik 20:00etara.

30ean, igandea, 11:00etatik 19:00etara.

Sarrera: 4 euro (8 urtetik beherako umeak doan).

**HERRI
JAKINTZA**
euskaltegia

IKASI EUSKARA

HITZ EMAN EUSKARARI!



Maila guztiak

Hizkuntz eskakizunak

HABE titulu ofizialak

EGA | IVAP | IRALE

Guraso taldeak



%100 diruz lagundua

**Matrikula
zabalik**
2018/19

Matrikulazio:

Irailaren 5etik 26ra

11:00etatik - 13:00etara

17:00etatik - 19:00etara

Natarroa hiribidea, 13 | IRUN (20302)

Telefonoz ere matrikulatu | 943-635-266

herrijakintza@gmail.com



HAE

